

Juan Antonio Garmendia Elósegui: Bihotz on eta zentzuzko gizona


Juan Antoniorekin izan nuen lehen harremana 1973an *Iñauteria* nire liburua atara zenean izan nuen. Harremana sendotu egin zen denbora aurrera joan ahala. Formazio akademiko sendoa du eta gauzak ondo egitea gogokoa du. Arinkeriatan aritu gabe, lanak ondo egitea lortzen zuen. Ordulariari begiratu gabe lan egiten du.

Bere gurasoak ezagutzen nituen. Euskarari buruz mahainguru batean parte hartzeko eske etorri zitzaidan, baina nik ezezkoa erantzun nion egokiena ez nintzela argudiatuaz.

Jubilatu arte Kutxarekin liburu guztian oso txukun ateratzearen ardura bere gain hartu izan du. Liburu hauen aurkezpenetan bere jakinduriaren zentzua somatzen da. Pertsona jantzia eta ondo prestatua da. Bere eskuetatik pasatzen diren lanek bere ukitua izaten dute.

Barandiaran eta Caro Barojarekin harreman oso estua izan zuen. Isidoro Fagoaga tenore wagnerianoa eta Xabier Zubiri filosofoarekin ere lotura xamurrak izan zituen. Adiskidetasun arloan bere zintzotasuna eta leialtasuna azpimarratu beharra dago. Adiskideen adiskidea da. Hasarreen aurkakoa da. Bihotz on eta zentzuzko gizona. Bere zuzentasuna eta bakezaletasuna aipatu beharra dago.

Nire tesi doktorala berari eskeinia da. Tolosan baditu sendikoak orain ere. Donostiarra da, baina Tolosa kuttuna du.



Juan Antonio Garmendia Elósegui: Bihotz on eta zentzuzko gizona (Nortasun ertzak) / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Galtzaundi. Tolosaldeko Herri Aldizkaria*. - Tolosa : Galtzaundi Euskera Taldea. - 85 zenb. (1999 otsaila), 17. orr.